**TESTU BATEGINA**

**Ordenantzaren onespena: 2005eko martxoaren 3an**

**Ordenantzaren aldaketa -15.1.b) artikulua-: 2005eko uztailaren 5ean**

## HIRIGUNE HISTORIKOAN TERRAZAK JARTZEA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZA.

## 1 KAPITULUA

### 1. Artikulua - Xedea.

1.- Ordenantza honen xedea bide publikoan terrazak jartzea eta horien osagarri moduan eguzkitakoak, bazterretako babesgarriak, loreontziak eta abar jartzea arautuko duen erregimen teknikoa eta juridikoa ezartzea da.

2.- Aurreko atalean aipatutako eraginerako terrazatzat hartzen dira ostalaritzan baimendutako jardueretan, hala nola, taberna, jatetxe, kafetegi eta antzekoetan denboraldi baterako osagarri moduan erabiltzen diren aulki mahai eta behin behineko tresna mugikorrak, horretarako baimena jardueraren titularra den pertsona fisiko edo juridikoari emango zaiolarik.

3.- Erabat debekatuta dago 1. puntuan aipatu gabeko tresnak jartzea, hala nola, hozkailuak, armairuak, etab.

### 2. Artikulua.-

Ordenantza hau aplikagarria da udalerri honetako Hirigune Historikoan erabilera publikoa duten eremu guztietarako (bide publikoa, eremu irekiak, berdeguneak, etab.) publikoak nahiz pribatuak izan. Erabilera publikorako baldintza hau zehaztuko da izatezko egoeragatik edo indarrean dagoen planeamenduko erabakiak aplikatuz.

## ORDENANZA MUNICIPAL REGULADORA DE LA INSTALACION DE TERRAZAS EN EL CASCO HISTORICO.

## CAPITULO 1

### Articulo 1.- Objeto.

1.- El objeto de la presente Ordenanza es establecer el régimen técnico y jurídico de la instalación sobre la vía publica de terrazas e instalaciones complementarias tales como parasoles, protecciones laterales, jardineras, etc.

2.- A los solos efectos de lo señalado en el apartado anterior, se entienden como terrazas el conjunto de mesas, sillas e instalaciones móviles provisionales que sirven de complemento temporal a una actividad legalizada del ramo de hostelería tales como bares, restaurantes, cafeterías y similares, siendo otorgada a las personas físicas o jurídicas titulares de la licencia de actividad.

3.- Queda prohibida la instalación de elementos distintos de los señalados en el punto 1, tales como refrigeradores, armarios, etc.

### Articulo 2.-

La presente Ordenanza es aplicable a todos los espacios (vía publica, espacios libres, zonas verdes, etc) del Casco Histórico del municipio que sean de uso publico, sean de titularidad pública o privada. Esta condición de uso publico vendrá determinada en función tanto de la situación de hecho, como por aplicación de las determinaciones del planeamiento vigente.

## II. KAPITULUA

## PLAZA ETA EREMU LIBRE BEREZIETAKO INSTALAKUNTZAK.

### 3.- Plazak eta eremu libre bereziak.

1.- Honelako lekuetan terrazak jartzeko eskaerak, kasu bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartuta eta ondoko baldintzak kontuan hartuta erabakiko dira:

Lorategiak eta jolaserako eta atsedenerako lekuak errespetatuko dira. Ez dute oztopatuko oinezkoen pasabiderik.

Eremu hori erabiltzeko baimena eskatu ahal izango dute 1. Artikuluan zehaztutako lokalen titularrek bakarrik eskatu ahal izango dute, baldin eta lokalaren fatxada aurrean kokatuta eremua bada.

Instalakuntza horiek pasabideetan jartzea debekatuko da.

Erdigune bera erabiltzeko baimena establezimendu batek baino gehiagok eskatuko balu, dagoen azalera eskatzaileen artean banatuko litzateke.

Udalak baimendutakoa baino azalera handiagorik ezin izango da okupatu.

Alboko etxeen fatxada aurrera okupatu nahi bada, horien jabeen idatzizko baimena beharko da.

## CAPITULO II

## INSTALACIONES EN PLAZAS Y ESPACIOS LIBRES SINGULARES.

### Articulo 3.- Plazas y espacios libres singulares.

1.- Las solicitudes para la instalación de terrazas en estos espacios, se resolverán según las peculiaridades de cada caso concreto y con sujeción las siguientes limitaciones generales:

Se respetarán las zonas ajardinadas, zonas de juego y descanso existentes. No se impedirá la fluidez del paso de los viandantes.

Unicamente podrán solicitar licencia de ocupación de la vía publica en estos espacios los titulares de los locales definidos en el art. 1 cuyos frentes de fachada den a los mismos.

Queda prohibida su instalación en las zonas señaladas como paso.

En caso de concurrencia de diversas solicitudes de ocupación sobre un mismo espacio central, la superficie a ocupar por los distintos establecimientos, será el resultado de dividir el espacio por las solicitudes existentes.

La ocupación no podrá en ningún caso sobrepasar la superficie a ocupar autorizada por el Ayuntamiento.

Deberá contar con la autorización por escrito de los colindantes cuando pretenda ocupar la fachada de los mismos.

Aulkiak eta mahaiak bakarri jarriko dira, eta debekatu egingo da kanpoko barrak, makinak, kioskoak, olana finkoak etab. jartzea.

Solo se referirá a sillas y mesas, estando prohibida la instalación de barras exteriores, maquinas, quioscos, toldos con anclaje fijo, etc.

## III. KAPITULUA

## CAPITULO III

### BALDINTZA TEKNIKOAK

### CONDICIONES TECNICAS

**4. Artikulua.-**

**Articulo 4.-**

Baimendutako mahai eta aulki kopurua bakarrik jarriko da. Establezmendu bakoitzari baimentzen zaion mahai bakoitzeko gehienez 4 aulki onartuko dira. Aldaketaren bat egin nahi izanez gero, eskaera berria aurkeztu eta baimena lortu beharko da.

Se colocará exclusivamente el numero de mesas y sillas autorizado . El número de mesas por establecimiento autorizado conllevará la autorización para la instalación de 4 sillas máximo por mesa . Para cualquier cambio, deberá presentar nueva solicitud y obtener la correspondiente autorización.

**5. Artikulua.-**

**Artículo 5.-**

Baimenaren jabe dena behartuta dago okupatutako eremua oso osoan garbi eta txukun mantentzera, horretarako egunero erraztu eta garbitu beharko du.

El titular de la autorización tiene la obligación de mantener , durante todo el día, el espacio ocupado en las debidas condiciones de limpieza e higiene, efectuando tareas de barrido y limpiezas periódicas.

Era berean, laneguna amaitzean altzariak establezimendu barruan jaso beharko ditu eta okupatutako lekua garbia utzi.

Así mismo, deberá retirar los elementos del mobiliario al término de cada jornada , al interior del establecimiento, debiendo dejar el espacio ocupado en perfectas condiciones de limpieza.

Kasu bereziren batean, tresneria jasotzea ezinezkoa zaiola egiaztatzen badu, altzariak bata bestearen gainean pilatzeko baimena emango zaio, beti ere ahalik eta lekurik gutxien hartzen duten moduan eta behar bezala segurtatu eta lotuta. Fatxadaren ondoko zatia hutsik utziko da, kasu berezietan izan ezik, eta horrelakoetan, hori guztia baimenean jasoko da.

En casos excepcionales y previa justificación de la imposibilidad física de la recogida, se permitirá a través de la correspondiente autorización, a apilar los elementos de mobiliario tras el horario de ocupación en la vía pública, con las debidas medidas de seguridad y sujeción y reduciendo al máximo la zona ocupada así como su impacto visual. Se dejará libre la zona próxima a la fachada, salvo los casos excepcionales que serán, asimismo recogidos en la correspondiente autorización.

Eguzkitakoak, mahaiak, aulkiak eta loreontziak bide publikoan lurrari erantsi behar izanez gero, horretarako udal baimena beharko dute. Dena dela, horrela egin behar izanez gero, tresneria kentzean lurreko loturak ezin izango dira lurraren paretik gora atera. Bide publikoan edo inguruko hiri elementuetan kalterik sortzen bada, kalte horiek osorik ordaintzeko exijituko dio udal administrazioak.

En los casos en que para la colocación de sombrillas, mesa, sillas, o jardineras sea preciso realizar anclajes en la vía publica, deberán tener la correspondiente autorización municipal. En todo caso estos se deberán colocar de tal forma que tras su retirada no sobresalgan de la misma. Para el supuesto de que se observen daños o desperfectos en la vía publica ocupada o en elementos urbanos cercanos producidos por la instalación autorizada, la administración municipal exigirá el importe total de los referidos daños.

Era berean, titularrak ostalaritzako jarduera hori etengo balu, bide publikoa lehen zegoen bezala utzi beharko luke, baldin eta lokal horretan ostalaritzako jarduerak jarraitu egingo duela eta horretarako lotura horiek beharrezkoak izango direla egiaztatzen ez badu behintzat.

De la misma forma, en caso de que el titular de la actividad de hostelería cese en la misma, deberá reponer la vía publica a su estado original , salvo que acredite que en el local se va a seguir desarrollando una actividad de hostelería que puede llevar aparejada la utilización de los anclajes.

- **Koloreak:** Kolore neutroak erabiliko dira (zuriak, krema koloreak, metalizatuak). Kolore nabarmen edo bizirik ezin izango da erabili. Dena dela zenbait kolore edo materialek baldintza hau betetzen duen zalantzarik izanez gero, interesatuak baimena eskatu aurretik argibideak eskatu ahal izango ditu udal zerbitzu teknikoetan.

- **Colores:** Se deberán utilizar los tonos neutros (blancos, cremas, metalizados....). No pueden utilizarse colores llamativos y/o chillones. A estos efectos y en caso de que el interesado tenga dudas sobre la adecuación a la presente normativa de un determinado material o color , podrá dirigirse a los servicios técnicos municipales a fin de aclarar estos extremos con carácter previo a la solicitud de autorización.

2.- Espresuki debekatuta daude publizitateko terraza estandarrak, goian aipatutako baldintzak eta bertan ezartzen diren materialak betetzen ez dituztenak.

2.- Se prohiben expresamente las terrazas estándar de publicidad que incumplan las condiciones o materiales descritos anteriormente.

3.- Altzariak oro har (mahaiak, aulkiak, eguzkitakoak, bereizgailuak, etab.) beti egoera onean mantenduko dira.

3.- El mobiliario en general (mesas, sillas, sombrillas, separadores, etc) se deberá mantener siempre en buen estado de conservación.

4.- Eguzkitakoak: Mahai bakoitzerako direnak ez dira lurrari josiko. Mahai bat baino gehiago estaltzen dituzten eguzkitakoak jartzeko baimena eskatu beharko da.

4.- Sombrillas: Las individuales para cada mesa no podrán ir ancladas al suelo. Para sombrillas que cubran mas de una mesa, se requerirá licencia expresa.

## IV. KAPITULUA

### ORDUTEGIAK

**6. artikulua.**

Debekatuta dago auzokoen atsedena oztopatzen duten zarata, oihu, edo bestelako iskanbilarik sortzea, batez ere 22:00 orduetatik aurrera. Kanpoko aldean megafonia jartzea debekatuta dago beti.

**7. artikulua.**

1.- Terrazak erabiltzeko ordutegia honako hau izango da:

**<u>Instalakuntza</u>**

10:00etatik aurrera, garbiketa lanak oztopatu gabe.

**<u>Jasotzeko ordua</u>**

Ekainaren 1etik irailaren 15era:

Igandetik ostegunera : 24:00 orduak.
Ostiraletan, larunbatetan eta jai bezperetan: 01:00 orduak.

Gainontzeko hilabeteetan:

Igandetik ostegunera: 23:00 orduak.
Ostiraletan, larunbatetan eta jai bezperetan: 24:00 orduak.

## CAPITULO IV

### HORARIOS

**Articulo 6.**

Queda prohibido turbar el reposo del vecindario con ruidos, gritos u otras molestias, con especial atención a partir de las 22:00 horas. En todo caso estará prohibida la instalación de megafonía exterior.

**Articulo 7.-**

1.- El horario de ocupación será el siguiente:

**<u>Instalación</u>**

Desde las 10:00 sin que se entorpezcan las labores de limpieza.

**<u>Retirada</u>**

Del 1 de junio al 15 de septiembre :

De domingo a jueves: 24:00 horas.
Viernes, sábados y vísperas de festivos: 01:00 horas.

Resto del año:

De domingo a jueves: 23:00 horas.
Viernes, sábados y vísperas de festivos: 24:00 horas.

2.- Plaza itxietan edo etxebizitzak oso baxu daudelako plazaren zoladuratik oso hurbil geratzen direnean edo beste arrazoiren batengatik auzokoei eragozpenak sortzen zaizkienean, ordutegia murriztu ahal izango da, igandetik ostegunera 21:00 orduak bitarte eta ostiraletan, larunbatetan eta jai bezperetan 22:30 orduak bitarte.

2.- En aquellos lugares como plazas cerradas o casos en los que se produjeran quejas por situarse el forjado inferior de las viviendas a una cota muy baja con respecto al forjado de la plaza , así como en aquellos casos en que se constate que , por cualquier otro motivo se producen molestias al vecindario , se podrá limitar el horario hasta las 21:00 horas d domingo a jueves y hasta las 22:30 horas los viernes, sábados y vísperas de festivos.

3.- Instalakuntzarako ordutegia ezarrita dagoen lekuetan ezin izango da hasi zamaketa lanen ordutegia amaitu arte.

3.- En las áreas donde exista, el horario de la instalación no se iniciará en tanto no haya finalizado el horario de carga y descarga.

8. artikulua.

Artículo 8.-

Jatetxetarako baimenik ez duten establezimenduek ezin izango dute bazkari edo afaririk eman bide publikoan dauden mahaietan.

Queda prohibido el servicio de comidas y/o cenas en las mesas que ocupen la vía publica para aquellos establecimientos que no tengan licencia de restaurante.

## V. KAPITULUA

## BAIMENA EMATEKO BALDINTZAK

### 9. Artikulua.

Terrazak eta beren elementu osagarriak jartzeko aldez aurretik udal baimena beharko da.

1.- Horretarako BAZen eskuratutako eskabide normalizatua aurkeztu beharko du interesatuak eta horrekin batera ondoko establezimenduen jabeen baimena ekarri beharko du alboko establezimenduen fatxada aurrea okupatu nahi badu behintzat.

## CAPITULO V

## CONDICIONES DE AUTORIZACIÓN

### Articulo 9.-

La instalación de terrazas y de sus elementos auxiliares queda sujeta a la previa autorización municipal.

1.- A estos efectos, el interesado deberá presentar la correspondiente solicitud normalizada que le será proporcionada por el BAZ, a la que se deberá acompañar la autorización de los titulares de los establecimientos adyacentes en el supuesto en que pretenda la instalación ocupando la fachada de establecimientos colindantes.

2.- Baimenean aldaketa garrantzitsurik egin nahi izanez gero (mahai kopurua, horien kokapena etab.) instalakuntzari buruzko memoria ekarri beharko da.

2.- A la solicitud de licencia o cuando se trate de un cambio sustancial de la licencia ( nº de mesas, ubicación, etc) deberá adjuntarse, una memoria del proyecto de instalación.

3.- Segurtasunagatik edo itxuragatik Udalak arrazoituta beharrezkotzat jotzen bada, proiektuan aldaketak egitea exijitu ahal izango da

3.- Cuando por razones de seguridad y ornato, y previo juicio municipal razonado se estime necesario, se exigirán cambios en dicho proyecto.

4.- Titularitatea aldatu edo berritu edota baimenean aldaketa handirik sortuko ez duen beste edozer egin nahi izanez gero, interesatuak nahikoa izango du aldaketa horren berri formalki ematea BAZen eskaera aurkeztuta.

4.- En los supuestos en los que se pretenda un cambio de titularidad, renovación y en general todas aquellas circunstancias que no conlleven alteraciones sustanciales en el contenido de la autorización , el interesado solo vendrá obligado a comunicar formalmente dicho cambio, mediante instancia a presentar en el BAZ.

5.- Baimenaren edukian aldaketa garrantzitsuak eragiten dituzten gainontzeko kasuetan, baimena eskatu beharko du interesatuak.

5.- En el resto de supuestos que conlleven un cambio sustancial del contenido de la autorización, el interesado vendrá obligado a solicitar autorización.

**10. Artikulua**.

**Artículo 10.-**

1.- Baimena ematea, jabetza eskubidea salbu utzita eta hirugarrenei kalterik sortu gabe egingo da, eta onuradunak ezin izango du bere jardueraren ondorioetarako erantzukizun zibila edo penala kentzeko edo murrizteko eskatu, era berean, eta beharrezkoa denean, bestelako baimenak eskatu beharko ditu titularrak.

1.- Las licencias se entenderán siempre otorgadas, salvo el derecho de propiedad y sin perjuicio del de tercero, no pudiendo ser invocadas para excluir o disminuir la responsabilidad civil o penal en que hubiera incurrido el beneficiario en el ejercicio de sus actividades, ni eximen a su titular de la necesidad, en su caso, de obtener otras autorizaciones.

2.- Baimena ematen zaion agirian finkatuko dira instalakuntzaren eta elementu osagarrien baldintzak, hartuko duen azalera, baimenaren iraupena eta beharrezkotzat jotzen diren gainontzeko zehaztasunak.

2.- En el documento de la licencia se fijarán las condiciones de la instalación y elementos auxiliares, superficie a ocupar, periodo de vigencia de la autorización, y demás particularidades que se estimen necesarias.

3.- Baimena behin behinekoa izango da eta udal agintariek arrazoituta agindu ahal izango dute instalakuntza horiek bide publikotik kentzea partikularraren kontura, baldin eta trafikoko edo hirigintzako arazoengatik edo herritarren intereseko beste arrazoiren batengatik horrela egin beharra ikusten denean, eta inolako kalte ordainik jasotzeko eskubiderik gabe.

3.- La licencia tendrá siempre carácter de precario y la autoridad municipal podrá ordenar, de forma razonada, la retirada de la vía pública, y a costa del particular, de las instalaciones autorizadas, cuando circunstancias del tráfico, urbanización o cualquier otra de interés general así lo aconsejen, y ello sin derecho a indemnización alguna.

4.- Baimenaren jabea behartuta dago instalakuntzaren eraginez bide publikoan sortzen diren kalteak konpontzera.

4.- El titular de la licencia queda obligado a reparar cuantos daños se produzcan en la vía pública, como consecuencia de la instalación.

**11. artikulua.**

**Articulo 11.-**

1.- Baimenek gehienez urte beteko iraupena izango dute, beraz interesatua behartuta dago epe hori igarotzean eskaera berritzera.

1.- Las autorizaciones tendrán un periodo de vigencia máximo de 1 año, de forma que el interesado vendrá obligado a solicitar la renovación de la misma una vez transcurrido dicho plazo.

2.- Epe hori amaitutakoan, baimenaren titularrak edo dagokion establezimenduarenak instalakuntza osoa kendu eta bide publikoa lehengo egoeran utzi beharko du.

2.- Transcurrido el periodo de vigencia, el titular de la licencia , y en su caso, el del establecimiento correspondiente , deberá retirar toda la instalación devolviendo la vía pública a su estado anterior.

3.- Aldaketa handirik egin nahi ez bada, beste epe baterako baimenak berritzeko eskaerarekin batera alboko establezimenduen adostasun berrituta ekartzea nahikoa izango da, egoera aldatu ez bada behintzat.

3.- Las solicitudes de renovación de licencia para ulteriores periodos que no supongan cambios sustanciales en la misma, habrán de venir tan solo acompañadas de la renovación de la conformidad de los establecimientos adyacentes, salvo que hubieran variado las circunstancias que dieron origen a aquella.

**12. artikulua.**

**Articulo 12.-**

1.- Betebehar orokorren eta Ordenantza honen ondorioz sortutakoen kalterik gabe, instalakuntzaren titularra behartuta dago baimendutako lur-zorua eta instalakuntza bera eta bere elementu osagarriak garbi eta

1.- Sin perjuicio de las obligaciones de carácter general, y de las que se derivan de la presente Ordenanza, el titular de la instalación queda obligado a mantener tanto el suelo cuya ocupación se autoriza, como la

txukun seguru eta behar bezala apainduta edukitzera, eta horretarako baliabide guztiak jarriko ditu, hala nola, paperontziak, hautsontziak etab.

propia instalación y sus elementos auxiliares, en perfectas condiciones de limpieza, seguridad y ornato, disponiendo para ello de todos los medios necesarios como papeleras, ceniceros, etc.

2.- Instalakuntzaren titularrak Udalari ordainduko dizkio dagozkion tasak eta gainontzeko ordainarazpenak, ordenantza fiskalek agintzen duten moduan.

2.- El titular de la instalación abonará al Ayuntamiento las tasa y demás exacciones que pudieran corresponderle, en la cuantía y forma establecida en las ordenanzas fiscales.

## VI. KAPITULUA

## ZEHATZEKO ARAUBIDEA

**13. artikulua.- Baimenik gabeko instalakuntzak.**

1.- Udal agintariak bada ezpada eta berehala kendu ahal izango ditu bide publikoan baimenik gabe jarritako terrazak eta horretarako prestatutako lekura eraman, dagozkion isunak jartzeko eragozpenik gabe.

2.- Baimenaren iraupena amaitu ondoren terrazak bertan jarraitzea, udal baimenik gabe jartzearen parekotzat joko da diziplinazko eraginetarako.

**14. artikulua. – Arau hausteak.**

Ordenantza honen arabera, arau hausteak arinak edo larriak izan daitezke:

1.- Arau hauste arinak izango dira:

a).- Terraza ezarritako ordutegiz kanpo jartzea.

## CAPITULO VI

## REGIMEN SANCIONADOR

**Articulo 13.- Instalaciones sin licencia.**

1.- La autoridad municipal podrá retirar, de forma cautelar e inmediata, las terrazas instaladas sin licencia en la vía publica, y proceder a su deposito en lugar designado a ello, sin perjuicio de la imposición de las sanciones oportunas.

2.- La permanencia de terrazas, tras la finalización del periodo de vigencia de la licencia será asimilada, a los presentes efectos disciplinarios, a la situación de falta de autorización municipal .

**Art. 14.- De las infracciones.**

A los efectos de la presente Ordenanza , las infracciones se clasifican en leves y graves.

1.- Tendrán la consideración de infracciones leves:

a).- Colocación de terrazas fuera del horario establecido.

b).- Baimendutako elementu ( mahaiak, aulkiak eta bestelako elementu osagarriak) kopurua gainditzea.

b).- Colocación de elementos ( mesas , sillas o otros elementos auxiliares) excediendo el nº de elementos autorizado.

c).- Mahaiak, aulkiak eta elementu osagarriak baimendutako lekuz kanpo jartzea.

c).- La ubicación de mesas , sillas o elementos auxiliares fuera de la ubicación autorizada.

d).- Okupatutako lekua behar bezain garbi, apain eta seguru ez edukitzea.

d).- No mantener el espacio de ocupación en las debidas condiciones de ornato , seguridad y limpieza.

e).- Ordenantza honetan ezarritako araudia ez betetzea.

e).- El incumplimiento de la normativa establecida en la presente ordenanza.

2.- Arau hauste larritzat joko dira:

2.- Tendrán la consideración de infracciones graves:

a).- Terrazak eta bestelako elementu osagarriak baimenik gabe jartzea..

a).- La instalación de terrazas y otros elementos auxiliares sin licencia.

b).- Ordenantza honi dagozkion elementuak baimendutako baldintza teknikoak bete gabe jartzea.

b).- La colocación de elementos sujetos a la presente ordenanza sin respetar las condiciones técnicas autorizadas.

c).- Zigor espedientea hasi aurreko urtean zehar hiru arau hauste arin egitea, ebazpen finkoaren bidez isuna jarrita.

c).- La comisión de tres infracciones leves , con imposición de sanción por resolución firme, durante el año anterior al inicio del expediente sancionador.

**15. artikulua - Zigorrak.**

**Art. 15.- De las sanciones.**

1.- Ordenantza honi buruzko arau hausteak isuna jarriz zigortuko dira, ondoko eskalaren arabera:

1.- Las infracciones de la presente Ordenanza serán sancionadas con multa de conformidad con la siguiente escala:

a.- Arau hauste arinetan 90 eurotik 300 euro bitarteko isuna jarriko da eta/edo udalaren aginduak betetzen ez badira, baimena bertan behera utzi eta instalakuntza kendu egingo da.

a.- Infracciones leves con multa de 90 a 300 euros y/o revocación de la licencia y consiguiente retirada inmediata de la instalación, en casos de desobediencia al requerimiento municipal.

b.- Arau hauste larrietan 300 eurotik 900 euro bitarteko isuna jarriko da.

b.- Infracciones graves con multa de 300 a 900 euros.

2.- Instalakuntza gero legeztatzen bada, eta berriro arau hausterik egin gabe udalaren aginduak betetzen badira, isun ekonomikoa bakarrik ezarri ahal izango da.

2.- Si la instalación fuera legalizada posteriormente, y no se hubiese dado reiteración, o resistencia a los requerimientos municipales, la sanción se podrá limitar a la sanción económica.

**16. Zigor espedientea.**

**Articulo 16.- Expediente sancionador.**

Isunak jarri aurretik, dagokion espedientea izapidetu beharko da EAEko Herri Administrazioetako zigor ahalmena arautzen duen Legeak xedatutakoaren arabera.

Las sanciones que procedan solo podrán imponerse previa la instrucción del correspondiente expediente, que será tramitada de conformidad con lo dispuesto en la Ley que regula la potestad sancionadora de las Administraciones Publicas de la CAV.

**17. artikulua- Betearazte subsidiarioa.**

**Articulo 17.- Ejecución subsidiaria.**

1.- Instalakuntzaren arduradunak Ordenantza honetan aurreikusitako kasuetan bide publikoko elementuak kentzeko Udalaren aginduak aintzakotzat hartuko ez balitu, Administrazioak subsidiarioki kendu ahal izango ditu eta horretarako prestatutako lekura eramango ditu eta jabeak bertatik jaso baino lehen dagozkion gastuak ordainduko ditu, hori guztia, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/92 Legearen 98 artikuluak xedatutakoaren arabera.

1.- Cuando el responsable de la instalación hiciera caso omiso de la orden municipal de retirada de elementos instalados en la vía pública, en los supuestos previstos en la presente Ordenanza, la Administración podrá proceder subsidiariamente al levantamiento de los mismos, quedando depositados en el lugar designado para ello, de donde podrán ser retirados por la propiedad, previo abono de los gastos correspondientes, todo ello de conformidad con lo dispuesto en los art. 98 de la Ley 30/92 de 26 de noviembre, Ley de Procedimiento Administrativo Común.

2.- Artikulu honek agintzen duen moduan biltegira eramandako tresneria ezin izango da 6 hilabete baino gehiago bertan eduki, epe hori igarotzean jabeak jaso gabe balego, Udalak desegin, saldu edo eman ahal izango luke.

2.- Los elementos que hayan sido retirados conforme a lo dispuesto en el presente articulo, no podrán permanecer almacenados durante un plazo superior a 6 meses, transcurrido el cual sin que por parte del interesado se hayan retirado, el Ayuntamiento podrá proceder a su destrucción, venta, o cesión.

## XEDAPEN IRAGANKORRA

Terrazetarako baimenak pixkanaka ordenantza honek ezarritako baldintza teknikoetara egokitze aldera, gaurtik hasi eta 2005eko abenduaren 31 bitarteko epea jartzen da. Egun horretatik aurrera terrazetako osagai guztiek Ordenantza honetan ezarritako baldintza teknikoak bete beharkao dituzte.

## DISPOSICIÓN TRANSITORIA

A fin de permitir una paulatina adaptación de las autorizaciones concedidas de terrazas a las condiciones técnicas establecidas en la presente ordenanza, se establece un periodo de adaptación hasta el 31 de diciembre de 2005. A partir de esta fecha , todos los elementos componentes de las terrazas deberán cumplir con las condiciones técnicas establecidas en la presente Ordenanza.

## AZKEN XEDAPENAK

1.- Ordenantza honek eragina izango du bere testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo hamabost lanegun igarotzen direnean.

2.- Udal agintaritzari espresuki ahalmena ematen zaio dagozkion baimenak emateko, Ordenantza hau ulertu, argitu eta garatzeko, Administrazio Prozedura Erkideari buruzko legeriaren arabera.

## DISPOSICIONES FINALES

1.- La presente Ordenanza surtirá efectos una vez transcurridos quince días hábiles desde la publicación del texto integro de la misma en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

2.- Se autoriza expresamente a la autoridad municipal para el otorgamiento de licencias, a interpretar, aclarar y desarrollar la presente Ordenanza, conforme a los principios recogidos en la legislación sobre procedimiento administrativo común.

Hondarribian, 2005eko uztailaren 5ean

Kale Nagusia, 20-20280 HONDARRIBIA (Gipuzkoa) - NIF: P-2003700 H
☎ BAZ 010 - 943 11 12 11 943 11 12 50 ☎ UDALA / AYTº 943 11 12 13 udala@hondarribia.org © www.hondarribia.org